


uk

134. zenbakia / 2008 martxoak 17



KANTUKETAN

2 0 0 8

APIRILAREN 5^{ENA}, 20:00ETAN PORTU ZAHARREAN, KARPA ESTALIAN

LATZEN ETA LOR



APIRILAREN 12^{ANA}, 19:00ETAN AREETAKO ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLAN

EUSKAL KANTU TXAPELKETA BIZKAIAN '08



DOAN

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Haizeak botatako hauteskunde-panela.
7. LEHEN ETA ORAIN. La Venta.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Valentin Atxotegi.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Udaberriko Kontzertuak, Getxo.
28. ARGAZKIA. Amigunagako gaztelua.
30. BERBETAN. Xabier Mendiguren.
34. FOTOGRAFIA. Numo Rama.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilerak.
43. MUSIKA. Etsaiak. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Jon Gerediaga. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Fadura kiroldegia zaharberitzea.
46. ELKARRIZKETA. Bilgune feministako kideak.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Komikolari, Erandio.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Tristan de Martiartu eskaut taldea, 1968. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Xabier Silveira, Ander P. Goikoetxea.

Azala: Asier Mentxaka




30 X. Mendiguren

Berbetan


Kontseiluak 10. urteurrena bete duela eta, euren gana jo dugu ibilbidearen berri jakiteko asmoz; hastapenetako egoera zein etorkizuneko erronkak ezagutzeko.



14 Arantza Yurre



11 Valentin Atxotegi




34 Numo Rama



46 L. Moragues eta B. Lertxundi



54 Xabier Silveira



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra

www.renaultleioa.com

Iparragirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42 43



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte

HELBIBIDEA: Armezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmingua, Ander P. Goikoetxea, Maitane Nerekan, Zuberioa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka, Jose Mari Martinez

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Oskar Fernandez, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vazquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
hain aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Opor zaleak

Aitortu behar dugu, bai, geu behintzat oporraldira begira gaude dagoeneko. Ez gara oso santuzale, oster, oporzale amorratuak gara. Baina lar alferrek bere ez garela uste dugu, zuek erabaki. Gabonetako oporrak urrunegi ikusten ditugu eta dagoneko 2008ko bosgarren UK hau ere kalean da... Horrenbestez, hain-hain alferrek ere ez gara. Baina ez gara hona etorri geure buruak zuritzera, beraz, oporzale porrokatuak gara eta kitto! Eta nori ez zaizkio gustatzen, ba? Altza dezala eskua oporrak gorroto dituenak! Hurbil-hurbil ditugun oporetan lan edo behar santua ahaztuko dugu, apur batez bada ere, eta zuek ere hala egitea espero dugu.

Agian hurrengo UK apur bat beranduago jasoko duzue, oporetako lasaitutik ezin iratzarrita ibiliko garelako, agian, eta hala bada, gure barkamenak jaso itzazue alde aurretik. Aitzitik, baliteke mirari bat egitea edota magia trukuren bat, edota amarru ilunen bat... eta hala bada, UK beti bezain puntual helduko da zuen etxeetara... Batek daki! Horrelakoak gara, txikitan ez ziguten etorkizunaren usainetik ondorioak ateratzen irakatsi, eta holan bizi gara, orainean ainguruta, iraganaren ziurtasun zehatz bakoaz...

Oporrak eta gerora arte! ✓

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



gutuna > Juan Bautista

“... Sorterrian zuzen eta xuxen gure egunak alaitzen dituzuen kide eta lagunei, itsaso bat maitasun...”

Elkartasun errepide zoragarri bat eraiki duzue gureganakiko. Gutun, besarkada eta muxu beroen bidez, heldu zaizkigu hona zuen leialtasunaren islada iraultzaileak. Momentu latzenetan ere, harrotasun eta tinkotasunez zeharkatu dituzue oztipoz beteriko bideak. Honek, lagun maiteak, indarrez eta bizi-pozez betetzen gaitu. Gu sostengatzen gaituzten sustrai gihartsuak zarete. Zuhaitzko gazte hau bizirik eta zutik mantentzen dutenak. Erakutsitako adorea gaitik, itsaso bat maitasun.

Ez nuke bukatu nahi aipamen berezi bat burutu gabe, bihotza bete didan Tiki horri; bititza zoragarria izan daitekeela erakutsi didan “umbrella” horri; sendagairik eraginkorrena bihurtu den Beñat horri; zuri, bihotzez, ozeano bat maitasun.

Maite zaituztegu, atzo, gaur eta bihar; guztioi.

Esker mila!



APRILUZE, 2008KO MARTXOKA 4

Haizearen indar politikoa /

Hauteskunde garaia; argazki irribarrearen, eztabaida errepikakorren eta esaldi potoloen garaia. Aritluze aldera ere heldu zen politikarien oihartzuna. Goleko argazki hau martxoaren 4an atera zen, haizeak gogor jo zuen egun horietako batean. Panela haizearekin borroka lauzean ibili eta gero, nekearen nekez, lurtera erori zen. Haizeak altxarzeko eta borrokan jarraitzeko eskatu zion, kakati deitu eta gero. Panelak ezetz erantzun zion, bera politikarien hitzen eramale xume bat besterik ez zela, eta hitzak, azken finean, haizeak eramaten dituela. / Argazkia: **Asier Mentxaka**

ERANDION

berbalagun

Ikasten dabilzanekin berba egiteko...

...ordu bete astean, bai?

Euskalduna bazara, emaiezu laguntza; eskertuko dizute-ta!

ANIMA ZAITEZ!!

Tel.: 94 467 27 81 (16:00etatik aurrera, Astelehenetik ostegunera)
658 70 93 32 (Leire)

e-maila: berbalaguna@gmail.com

helbide postala: San Jeronimo 14 behea • Altzaga



ERANDIO ELIZATEKO UDALA



Ayuntamiento de la Anteiglesia de Erandion



DEPARTAMENTO DE CULTURA



Foro Aldekoa Diputación Foral de Bizkaia



GETXO KO UDAL LIBURUTEGIA

[lehen]



ASER MENTXAKA

[orain]

Iraganez doa denbora* beti / LA VENTA, GETXO

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Ez begiratu behera



Langileak aldamaian Amezti kalean

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Aldamioan gora
zortziak aldera
etxea teilatutik
eraikitzen.
Kaskoa ez da inoiz
izaten sobera
ezta hamaiketako
orduan tartera,
batetik bestera
honen altuera
arazo ote da?
Mesedez, bai zera,
baina ez begiratu
inoiz behera.

2

Amildegia handi bat
bizkarraren habe
aldamioa, berriz,
gure aldare
izerdi patserako
lana parez pare,
eskerrak zerbait baden
pozaren ondare:
neskak alde alde,
zatarrak badaude,
baina zenbait andre
ikusita, madre!
Laster gelditzen gara
piropo gabe.

3

Guztia, aldiz, ez da
hitz eta atsegin,
lanari behar zaio
gogotik ekin.
Ez zegoen lekuan
sortzen behar jakin,
lau harri eta egur
nola etxe egin.
Baldosatxo urdin,
teila gorri gordin,
adreiluak berdin...
Dena jarri arin,
berrogei urte barru
ordaindu dadin.

* Doinua: *Betroiarena*

Uribitakoran parte hartu nahi duzu?
Bidal iezaguzu atal honetan agertzea
nahi zenukeen argazkiren bat eta
bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

zorionak! > Bigarren urteurrena ospatuko du Txorimalo gaztetxeak



Martxoaren 25etik 29ra antolatuko dituzte ekitaldiak

Bi urte pasa dira jada algortako neska-mutilak autogestioa lantzen hasi zirenetik. Denbora horretan tailerrak, hitzaldiak, bertso saioak, kontzertuak eta beste hainbat ekimen antolatu dituzte. Martxoaren 25ean 2. urteurren jaiari hasiera emango diote arratsaldeko 7etan ekitaldia, aurrekua eta txupinazoarekin; ondoren, laburmetraia gaua antolatu dute. Hurrengo egunean, Uribe Kostako Gaztetxe eta Gazte Asanbladen arteko Agrolinpiaden txanda izango da. 27an, haurrentzako pailazoan emanaldiarekin gozatu ahal izango dute etxeko txikienek Telletxe enparantzan. Egun berean, koblakariak eta Mobidyk bakarlariaren emanaldia egongo da. Martxoaren 29an, patata tortilla txapelketarekin hasiko da eguna; ondoren, herri bazkaria, bertso-sari banaketa eta Airon Maider, Pikadura eta D.A.R.K taldeen kontzertuak izango dira.

lehiaketa > Rolling Rolak lehiaketa martxan, ezarritako rolak hausteko



Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 21a da

Nontzeberri kultura webguneak eta Pripublikarrak kolektiboak *Rolling Rolak* ekimena jarri dute martxan. Honekin, *“ditugun, asmatzen ditugun eta ezarriak izan zaizkigun rolei buruzko gogoeta”* egin gura dute eta genero kontuekin harremana duten zein ez duten argazkizaleak bildu gura dituzte. Lehiaketak hiru parte izango ditu: *Argazklik* on-line argazki lehiaketa; *Camara Crossing*, kateatutako argazki serieen erakusketa eta *Genero eta gorputz ekoizpenak* mintegi teorikoa, praktika artistiko garaikideen bidez generoak aztertzea ahalbidetuko duena. Lehiaketa on-line izango da www.argazklik.com webgunean. Hiru argazkiko serieak aurkeztu beharko dira; hauek harremana izan dezakete euren artean. Lanak jasotzeko epea maiatzaren 21ean amaituko da.

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

Omenaldia > Iñigo Castrori gorazarrea egin diote Getxo Rugbykoek



Goian, Casto partida batean.
Behean, omenaldi egunean partida jokatu zuten jokalariek.

Bi urte pasa dira dagoeneko Iñigo Castro Getxo Rugby taldeko jokalaria ohia istripu baten ondorioz hil zenetik. Galiziako C.R.A.T. Rugby Taldeko partaide ere izan zen. Otsailaren 23an omenaldi xume bat egin zioten Getxoko eta Galiziako errugbylariek. Castroren gurasoei eta anaiei, C.R.A.T.ren eta Getxo Rugbyren kamisetak eta sudaderak oparitu eta oroigarriak eta ohorezko txapela eman zizkieten, ekitaldi hunkigarri batean. Ondoren, bi taldeetako beteteranoek, Iñigoren taldekideak izandakoak, lagunarteko partida jokatu zuten eta getxoztarrek 5-2 irabazi zieten galiziarrei. Amaitutakoan, afari ederraz gozatu ahal izan zuten denak elkarrekin. Bertan egondakoek esandakoaren arabera, oso egun polita izan zen; izan ere, denontzat gertaera gogorra den arren, giro ezinhobeia izan zen omenaldian, partiduan eta amaierako afarian. Maiatzean, Galizia aldera hurbilduko dira Getxo Rugbyko lagunak errebantxa jokatzera. ○




cianoplan
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



[erretratua]



"Musika munduan disziplina barik ez da egiten ezebez", diño Valentín Axtotegi

Valentín Axtotegi > Leioako Kontserbatorioko zuzendaria

Durangarra, euskaldun petoa eta musikazalea. Horrelakoa da Valentín Axtotegi, Leioako Musika Eskola eta Kontserbatorioko zuzendaria. Bertakoa ez bada ere, bizitza erdia eman du Leioan, izan ere 21 urte daramatza kontserbatorioan beharrean, 8 zuzendari moduan. Bilbon, Bartzelonan eta Madrilen egin zituen musika ikasketak eta musika-tresna nagusi legez gitarra aukeratu zuen: *"Ez dakit zergatik aukeratu neban gitarra; badakizu herrixetan.... Nire familixan anai guztiek musika ikasi dabié"*. Gustura dago egindako lanarekin: *"Kontserbatorio hau oso dinamikoa da. Proiektu asko daukie eta ni proiektu guztietan sartute nau. Ekintza asko egiten ditugu kanpuen eta hori ona da"*. Musikak disziplina handia eskatzen badu ere, gazteekin ondo moldatzen da Valentín: *"Joan den urtean 12 egun ibili ginen herriz herri, titiriteroen moduen. Kontzertua, afaria, egin lo ez dakit non... gabean lo egin behar da, hurrengo egunean kontzertua emoteko. Disziplina barik hamen ez da egiten ezebez"*. Askoz aukera gehiago daukate gaur egungo gazteek: *"Inbidia handiak in ikusten ditut. Nik ikasketak egin nituenean ez dakit nora joan behar ginen trenéz"*. Musika bere bizitza da eta asteburua heltzen denean ez du alde batera uzten: *"Doinu Zahar abesbatzan abesten dot eta asteburuetan ensaiuak dekodaz. Bakoitzak deko bere afiziñue"*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Musika jaialdiak eta azokak


Kultur Etxearen programazioan musika jaialdi handiak eta azokak izango dira aurten garrantzitsuenak. Ekitaldi txikiagoek eta programazio iraunkorrak ere tarte zabala izango dute ekimenen artean

Jazz, Blues, Folk, Eskulangintza, Komikia, Getxoarte, Antzerki Jardunaldiak, San Lorentzo, Getxolandia, Habanerak, Folklore Jaialdia, Aste Korala, Gaurik laburrena, Erdi Aroko Azoka, euskaltegiak, zinema, Korpus Jaia, kontzertuak, Dantzaren Eguna, Agate Deuna, dantza, liburutegiak...

Ekainean Nazioarteko Blues Jaialdia, ondoren Getxo Jazz eta irailean, Folk Jaialdiak itxi-ko du emanaldi handien zikloa. Horiek izango dira Kultur Etxearen programazioaren "euskari nagusienetakoak". Horiek udakoak, baina urtean zehar ere hainbat musika ekitaldi egingo dituzte: Habanera Jaialdia, Aste Korala eta Folklore Jaialdia adibidez. Kultur Etxeak martxoan ipiniko ditu abian aurtengo ekimenak, Udaberriko Kontzertuekin. Orain arte musika klasikoko Udazkeneko Kontzertuak zirenak, 2008tik aurrera Udaberrikoak izango baitira.

Azokak eta erakusketak ere, betiko legez, Kultur Etxeko programaren beste ekimen garrantzitsuak izango dira. Uda atarian Eskulangintza Azoka antolatuko dute. Harekin batera eta ibilbide laburragoa badute ere, aski ezagunak diren Getxoarte, Komiki Azoka eta Erdi Aroko Azoka egingo dituzte.

Ekitaldi handien eskaintza osatzeko, ekimen txikiagoak gozatzeko aukera ere izango da. Horra hor Antzerki Jardunaldiak, euskal antzerkigintzaren erakusgarri gisa; Gaurik laburrena, film laburren ekitaldia; eta Getxolandia, haurren Gabonetako topale-



Blues Jaialdia ekimen handien artean kokatzen dute urtez urte

kua. Gainera, San Lorentzo Azoka eta Erregeen Desfilea antolatuko ditu Kultur Etxeak. Euskara Jardunaldiek ere euren txokoa izango dute aurtengo programazioan. Jardunaldiok "gure hizkuntzaren inguruan ekitaldi zabala eskaintzen" dutela azaldu dute Udaletxetik.

Horraino ekimen zehatzak. Baina programazio egonkorra ere prestatu du Kultur

«Programazioaz gainera, liburutegiek eta euskaltegiak urte osoan zehar dihardute auzoz auzo»

Etxeak aurten, "aisialdia kultur ekitaldiz osatu eta betetzeko" asmoz. Horien artean daude antzerki emanaldiak, kontzertuak eta zinema zikloak (Zine-Kluba, Cinema Paradiso, Haur Zinema). Erakusketak, hitzaldiak eta dantzak ere ugariak izango dira.

Egitarau hori bizirik mantentzeaz gain, ekitaldi zehatzak ere sustatu gura dituzte, besteak beste, Agate Deuna bezperako koruak, eskolako inauteriak, Pio Lindegarden omeneko kontzertua, Emakumeak Musikan Jaialdia, Eskolako Antzerki Jardunaldiak, Dantzaren Eguna eta Korpusaren jaia Portu Zaharrean.

Azkenik, beste bi zerbitzu aipatu dituzte: liburutegiak eta euskaltegia. Udal liburutegiek "denboraldiz denboraldi irakurketaren aldeko lan sakona egiten dute eta berezko jardueren programa ere osatzen dute: Liburu Azoka, ipuin kontalariak, eskola bisitak...", jakinarazi dute. Udal Euskaltegiari dagokionez, urte askotan "gure hizkuntzaren alde egiten duen lan eskerga" izan dute hizpide. Ikastaro eskaintza oparoa aipatu dute, "euskara ikasten hasi nahi dutenentzat ez ezik, eza-gutza zabaldu nahi dutenentzat ere". ○

Arraza bereizkeriaren aurkako eta aniztasunaren aldeko jardunaldiak egingo dira apirilean



Pasa den urtean egindako jaiaren irudi bat

Martxoaren 21ean Arraza Bereizkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, arraza bereizkeriaren aurkako eta aniztasunaren aldeko IV. Astea antolatu dute hainbat elkartetek eta Udalak. Helburua da "herritarrek kulturaren arteko elkarbizitzaren beharraz ohartaraztea, pertsona guztiek eskubide berberak izan ditzaten eta bereizkeria jokaerak gerta daitezen ekiditeko".

Programa zabala prestatzen dabilta hila-bete osorako. Apirilaren 3an, osteguna, Malen Etxea Elkarteak aurkeztuko dute Algortako Nagusien Etxean. Apirilaren 5ean, larunbata, Kulturaren arteko Jaialdia ospatuko dute. 17:00etan hasiko da eta 20:30 arte luzatuko da. Oraindik ez dakite ziur non egingo duten, baina posible da Algortako Zabala eskolak edo Erromoko eskolak aukeratzeko. Ekimen ugari

burutuko dute jaialdiaren aitzakiarekin. Egun berean, "Kulturen arteko elkarrekin eta bakerako ipuin kontalaria" tailerra egingo dute Erromoko Kultur Etxean.

Apirilaren 9an, asteazkena, berriz, zine emankizuna egongo da Getxo Antzokian. Gerardo Olivaresen "14 kilometro" filma eskainiko dute. Apirilaren 12an, umeentzako tailerra antolatuko dute, oraingoan Areetako ludotekan.

Ekitaldi horiekin batera, Islamari buruzko erakusketa jarriko dute hilaren 3tik 19ra bitartean. Torreneko BBKren antzinako aretoan izango da. Gainera, beste hainbat tailer gauzatu dute. Apirilaren 4an perkusioari buruzkoa izango da, 11n idazketari buruzkoa eta 18an, islamiar kulturari buruzkoa. Guztiak 18:00etatik 20:00etara izango dira. ○

"VALORA" EGITASMOA MARTXAN JARTZEA BERE GAIN HARTU DU UDALAK

"Valora" izeneko egitasmoa abiatzea bere gain hartu du Udalak. Bertatik azaldu dutenez, egitasmoa Behargintzak diseinatu du eta Europako Gizarte Funtsak inbertsioaren %50 ematen du. Bere helburu nagusiak dira "enpresa kudeaketa eta lana antolakuntza berriari buruz sentsibilizatzea, zabaltea eta aholkularitza ematea, hala nola, enpresa horiek gaurkotzeko eta gizarteratzeko beharrezkoak diren metodologiak, materialak eta zerbitzuak ezagutzera ematea". Proposatutako ekimenek zerikusia dute udalerriko enprekin eta bertan lan egiten duten adaptazioarekin. 682.214 euro inbertituko ditu Udalak. Gainera, urte urte dagokion kopurua ordaintzeko konpromisoa hartu du.

EZKER ABERTZALEAREN ALEGAZIOAK PUNTA BEGOÑAKO ALDAKETEI

Udalak Hiri Antolamendurako Plangintza Orokorrean egin nahi dituen aldaketek proposamenaren aurkako alegazioak aurkeztu ditu Ezker Abertzaleak. Dioenez, "aldaketek bitartez Udalak men egingo lieke Punta Begonia edo Etxebarrietaren txaleteko galerietan hotel bat egin asmo duen Barceló enpresaren eskakizuneei". Aldaketek "getxoarren jabetzako galerietan hotela eraikitzeko lehiaketara ateratakoa baino 3.500 metro koadro gehiago ematea suposatuko luke".

BIDEGORRIA EGINGO DUTE ERREKAGANEN

Gobela ibaiaren paretik doan Erromoko Errekagane pasealekuan laster abiatuko dituzte birmoldaketa lanak. Besteren artean, bidegorria egingo dute. Gainera, oinezkoentzako pasabidea zaharberrituko dute, Ezekiel Agirre kaleko zubia gurutzatu ondoren dagoen parkearekiko lotura barne. Hobekuntza horrekin "egungo pasabidea zabaldu nahi da eta aldi berean, aipatu bezala, bizikletetarako bidea egokitu".

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illaeta kalea 1 • ALGORTA

IRATI moda gaztea opariak

Torre 2, ALGORTA
T. 94 491 12 71

Arantza Yurre > Antzerkigilea

“Emakumeok gauzak txarto egiteko eskubidea ere badugu”



Arantza Yurre, Getxoko Antzerki Eskolako zuzendaria da

Gainontzeko gaietan legez, antzerkian ere jasaten dute bazterketa emakumeek. Horretaz kontziente edo ez, emakumeen lan gutxiago sartzan dute programazioetan. Horregatik, Getxoko Antzerki Eskolak jardunaldi batzuk antolatu ditu, Udalaren eta Emakunderen laguntzagaz. Arantza Yurre eskolako zuzendariak eman digu haren berri.

—Arte eszenikoetan emakumeen agerikotasunaren gaineko bigarren jardunaldiak egin zenituzten orain dela gutxi, martxoaren 3an, hain zuzen. Zertan datza hori?

—Orain dela bi urte, arte eszenikoetako botere guneetan parekotasunari buruzko ikerketa bat egin genuen, emakumeak botere guneetan gizonak beste geunden edo ez jakiteko. Ezezkoa atera zen, tarte nabarmenarekin. Esparru guztiak arakatzea erabaki genuen. Tartean, iazko otsailan Berdintasun Legea onartu zuten. Lege horren arabera programazioak parekoa izan behar du. Hari buruz aritu gura genuen jardunaldietan. Izan ere, programazioari buruzko beste ikerketa bat ere egin dugu; zuzendaritza eta

sormenari buruz ari naiz. Gutxiago programatzen dituzte gure lanak.

—Hor sortzen da arazoa?

—Arazoa boterean sortzen da. Mendeetan antzerki-zuzendaritza gizonen esku egon da. Oraindik gizon gehiago dago zuzendarien artean, baina emakume asko ere bai. Bestalde, sortzaileei begiratu genien. Garrantzitsua da alor hori, gizarteari ematen zaion mezua baita sortzailearena. Ikus-entzule gehienak emakumeak dira, baina antzerkian botatzen dituzten mezuak ia beti gizonen ikuspegitik botatzen dituzte. 2007ko Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako jaialdietan nolako programazioa egin zuten ikertu genuen. Horietatik %80tik gora gizonak

izan ziren. Jardunaldietan horretaz konturaz gura genuen, kontzientzia hartzeko bidean urrats bat eman.

—Programatzaileak ez direla horretaz konturatzen pentsatuko du norbaitek.

—Baina datuak hor daude. Beraz, kontuz ibiltzeko eskatzen diegu. Zuzendari eta sortzaile asko emakumeak gara, gizonak baino gutxiago bai, baina horrek ez du esan gura produkzionik ez dagoela. Ez atzera ez aurrera gaude, geldi, ez digute ateratzen uzten.

—Lanik onenak aukeratzearekin soilik, arazoa konpon daiteke?

—Baina zer da onena? Onena gizonek egiten dutena da beti? Ez, hori gezurra da. Eta

«Lanak aukeratzean kontuz ibiltzeko eskatzen diegu programatzaileei»

legez, programazioa parekoa izateko eskubidea dugu orain, gainera. Sortzaile askok ere porrot egiteko eskubidea aldarrikatu dute. Batzuetan txarto atera daiteke lana, baina gizon asko ezagutzen dugu eta hauei batzuetan txarto atera zaie. Horregatik, ordea, ez da beraien sormena zalantzan jartzen. Emakumeekin alderantziz gertatzen da, zerbait txarto eginez gero, txarra zarelako da. Bada, hori ez da horrela. Gizon zuzendari erdipurdiko asko dago, eta jasan behar ditugu. Baina emakumeok lan ederra egin behar dugu kontuan har gaitzaten. Ez gaude ados, gauzak txarto egiteko eskubidea ere badugu. Presio horren eraginez, gure lana gelditzen da.

—Horrenbestez, orain, zer egiteko asmoa duzue?

—Lan ildo irekiko dugu. Kultura zinegotzietan gutuna helaraziko diegu, programatzaileei gaiarekin kontuz ibiltzeko esan diezaieten eskatuz. Emakunderekin ere hitz egiteko asmoa dago. ○

Latzen taldearen azken

kontzertua **Portu Zaharrea** izango da, Lor taldearekin batera, apirilaren 5ean



Latzen osatzen duen laukotea

Latzen musika taldeak Portu Zaharrea bukatuko du Infernuko Ateetan Tour azken bira. Harekin batera arituko da Elorrioko Lor talde gaztea. Portuan karpa jarriko dute, betiko legez, eta doakoa izango da sarrera. Emankizuna 20:00etan hasiko da. Bira horrekin, Latzen taldeak "ikusentzuleek merezi duten bezala agur" esan nahi dio bere ibilbideari.

Orain 15 urte sortu zuten Oñatiko taldea. Berehala egin ziren ezagunak. Izan ere, Euskadi Gaztea irratiko maketa lehiaketan entzuleen saria irabazi zuten 1993an, *Heriotzari deika* lanari esker. *Kontzientzia ala infernua* lehen diskoak sekulako arra-

kasta izan zuen gazteen artean. Metal musikako abesti gogorrak bildu zituzten bertan, beti ere rock ukitu batekin. Kantuen artean *Bat gehiago*, *Hiesa ihes*, *Ze ingo xu* eta *Lastana* abesti ezaguna zeuden. *Ardi Larruz* bigarren diskoak oihartzun txikiagoa izan zuen. Hainbat urtez jo gabe ibili ondoren, azken bira hau egiteko batu dira.

Lor taldea, ordea, gazteagoa da. 2003an kaleratu zuen izen bereko lehen diskoa. "Rockaren indarra eta doinu ezti-goxoak nahasten ditu", horrela definitu zuten. Gaur egun proiektio handienetako duen taldeen artean dago. Iazko azaroan bigarren lana kaleratu zuten, *Bakoitzari berea* izenekoa. ○

NAGUSIENTZAKO GUNEA IZANGO DU MALAKATEK ETA ERREKAGANE BIRMOLDATUKO DUTE


Andra Mariko Malakate parkean moldaketak egingo dituzte. Bertan nagusientzako aisialdi gunea aurreikusitako Udalak. Egitasmoaren aurrekontua 821.325 eurokoa izango da. Haurrentzako jolaserako 500 metro koadro gorde dituzte eta 150 metro koadro nagusientzako. Ur Ubidia kontrolatzeko etxetxea ere zaharberrituko dute. Erromoko Errekaganeko pasealekua eta parkea ere birmoldatuko dituzte. Udalak 1.650.000 euro inbertituko ditu lan horretan eta abuzturako bukatzeko asmoa du. Pasealekuko espaloiak zabalduko dituzte eta hiri-altzariak aldatuko dituzte.

ZINEMAREN BEGIRADAK IKASTAROA ATZERATU DA

Zinemaren Begiradak izeneko euskarazko ikastaroa atzeratu egin dute. Ondorioz, izena emateko epea martxoaren 18a arte luzatu dute. Ikastaroa, beraz, ondoko egunetan egingo dute: apirilaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean, maiatzaren 8an, 14an, 21ean eta 28an, eta ekainaren 4an. Deustuko Unibertsitateak antolatutako ikastaroen artean Udalak herrira ekarritakoen artean dago hori. Gainontzekoak gazteleraz dira: Arte europarra Historiaren, Goyari buruzkoa eta emakumeen idazkuntzari buruzkoa.

APO LASTERKARIA BABESTEKO NEURRIAK MANTENDUKO DITUZTE

Udala neurriak jartzen ari da apo lasterkaria babesteko Gorrondatxe hondartzan, apo mota hori galbidean baitago. Aurrera jarraituko du neurriekin. Kantauri aldean ale gutxi geratzen da. Gorrondatxetik aparte, Txingudin besterik ez da bizi apo lasterkaria. Begi nini horizontalak ditu, marra horia gorputzean eta itxura zimurtsua. Inguru hareatsuan bizi da.



Basurto

Algora S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • **ALGORTA**

Javier Fernandez > Santa Ana beilaetxeko arduraduna

“Antzina **etxeetan zuten** hildakoa beilatzeko gela; gaur egun beilaetxeak betetzen du funtzio hori”

Otsailaren 29an Leioako lehenengo beilatokia estreinatu zuten. Santa Ana du izena eta Amaia kalean aurki dezakegu. Javier Fernandez hilobi-etxeko arduradunak azaldu digunez, zonalde honetan beilatoki moderno eta funtzional baten premia somatzen zuten. Egoitza berri honek beilatzeko hiru gela ditu, Abra, Galea eta Las Mercedes deiturikoak. Guztira, 300 metro koadro.

—Zein zerbitzu eskaintzen du Santa Ana beilaetxeak?

—Beila zerbitzua, kamara zerbitzua... Horretaz gain, noski, hileta-zerbitzu guztiak ere eskaintzen ditugu, hau da, hilku-txan sartzetik, hilerrira edota errausketa-labera eroan arte.

—Zenbat urte darara hilobi-etxe honek zerbitzu mota hauek eskaintzen?

—Buff! pilo bat: 100 urte gutxi gora behera. Hori dela eta zabalkunde handia dugu: gaur egun, Leioan ez ezik, Bilbon, Barakaldon, Galdakaon, Sodupen, Portugaleten, Sestaon, Donostian eta Espinosa de los Monterosen ere (Espainia) dugu beilatokia.

—Zer dela eta erabaki duzue Leioan ere horrelako bat zabaltzea?



Beilatoki berriko sarrera

—Zonalde hau arlo honetan umezurtz dagoela pentsatzen dugulako. Leioan zein eskualde osoan, beilatoki moderno eta funtzional baten premia ikusten genuen.

—Zehazki zer egiten da beilatoki batean?

—Heriotza gertatu eta medikuaren ziurtagiria sinatu ostean, gorpuarekin zenbait gauza egin behar dira, hala nola, elizara eroan eta ondoren hilerri edota errausketa-labera eroan. Bitartean hildakoa beilatzten dute senideek.

Antzina, etxeetan zeuden beilagelak eta bertan beilatzten zituzten joandakoak, baina gaur egun, noski, ez dugu horrelakorik etxean. Tradizioa, berriz, askok mantentzen dute eta beilatokiak horri zuzendutako gelak ditu. Hau da, hildakoa giro atsegin batean beilatzeko aukera ematen zaie senideei; momentu latz horiek ahalik eta ondoen igarotzen laguntzen dugu beti ere gertakizunaren larritasuna kontuan izanik. ○

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparagarre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

Gurasoak umeakaz

Lamiako ikastetxea saritu dute gurasoak umeen heziketan parte hartzera bultzatzen dituelako



Lamiako ikastetxea

Lamiako Eskola Publikoak sari bat irabazi du berriro ere, aurrera eramandako programa berritzaileari esker. Oraingoan, Leioako Udalak ematen duen Coeduca 2007 saria lortu du eskolak.

Gizonezkoen irudia eskolan integratu duelako eman dio Leioako Udalak aipatutako saria Lamiako Eskolari. Guraso, aite-amama eta bestelako senitartekoak umeen heziketan parte hartzera deitu ditu eskolak bere programaren bitartez.

Bertako 80 ikasleen amen gehiengoak exetik kanpo lan egiten du, batez ere nes-kame gisa. Baina era berean, guraso asko denbora librea dute eta eskolak euren seme-alaben heziketan parte hartzeko aukera eman die. “Gaur egun ikasle guztien familiak

ezagutzen ditugu”, aipatu du eskolako zuzendari Adelaida Otxoak.

Otxoaren ustez, umeen heziketa ez da bukatzen behin klaseak bukatuta: “*Umea klasetik kanpo ere hezi beharra dago, eta zeregin horretan, senideek oso funtzio garrantzitsua betetzen dute.*”

Era berean, eskolako zuzendaria pozik agertu da “*eskolek integratzen bidea zabal-tzen dutelako, berdintasunaren alde lan egiten dutelako eta estereotipoak ezabatzen dituztelako.*”

Nahiz eta Lamiako Eskola Publikoan ume gehienak etorkinen seme-alabak izan, proiektu honetan lan egin duten guraso gehienak bizkaitarrak dira. Etorkizunean proiektu honetan guraso gehiagok parte hartzea espero du Adelaida Otxoak. ○

LEIOAKO MENDIZALE BAT ERRESKATATU DUTE BALTZOLAKO KOBETAN

Martxoaren 1ean Leioako L.A.D.R. 45 urteko gizonezkoa erreskatatu zuen Ertzaintzako mendirako erreskate taldeak Dimako Indusi auzoan. Mendizalea Baltzolako kobetarako sarrera egiten duen Jentilzubitik behera erori zen, 15 metroko altueran. Hainbat pertsonak deituta Jentilzubiraino hurbildu zen Ertzaintzako Brigada Higikorreko Mendirako Erreskate Taldea. Ertzainek mendizale leioztarrarengana jaitsi eta 500 metro gora eraman behar izan zuten zauritua, ambulanzia hurbildu ahal izan zen lekuraino.

LEIOAKO INAUTERIE TAKO ARGAZKIAK INTERNETEN IKUSGAI DAUDE

Leioako Maritxu Teilagorrik azken Inauterien herriko argazkiak kaleratu ditu sarean, gura duten auzokideek ikusi ahal izan ditzaten. Otsailaren 1ean jai herrikoien aldeko taldeak antolatutako umeen jolasetan edota tailerretan parte hartu zutenen 200 argazki baino gehiago aurki daitezke bertan.

Informazio gehiago:

www.maritxuteilagorri.mundua.com

SAKONETAKO BULDERRA BERRIZTATU DUTE

Hiru asteko obren ostean, Sakoneta polikiroldegiko bulderraren zati bat berriztatu dute.

Tiro Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Naiara Alvarez > Erandioko Betiko Neskakeko lehendakaria

“Lortu dugu jendeak gu ez ikustea **zomorro arraroak** bagina bezala”

Emakumezkoen futbola indartzen doa eta horren adibide aurten sortutako Erandioko Betiko Neskak dugu. Guztira 60 bat jokalaria biltzen ditu talde honek eta gehienak erandioztarrak dira, nahiz eta bilbotarren bat ere egon. Naiara Alvarez aipatutako taldeko lehendakariak aipatu digenez, momentuz hiru talde dituzte, baina etorkizunean alebin edota benjaminetik hastea gustatuko litzaieke.

—Orain arte Erandioko Futbol Taldearen barruan zeundeten eta aurten talde berria sortzea erabaki duzue...

—Bai. Emakumezkoen futbola momentu gorenean dago eta horregatik beharrezkoa da talde gehiago egotea, egitura hobea izatea. Hori da gure helburua. Momentu honetan hiru talde ditugu eta etorkizunean alebin edota benjamin deituriko mailetan jardutea espero dugu; azken finean, egitura osatua edukitzea.

—Zenbat jokalaria biltzen ditu guztira Erandioko Betiko Neskak taldeak?

—Hiru talde ditugu guztira: erregionaleko lehenengo eta bigarren maila, eta kadetegazte maila. Hiru talde hauen artean 60 bat jokalaria ditugu. Aurten jokalaria berri asko etorri dira, batez ere bigarren taldera; talde



Lurralde mailako lehen mailako taldea

honetan daudenak futbol salatik datoz edo jokatzen duten lehenengo urtea da.

—Talde berria izanik, material berria erosi behar izan duzue. Nondik lortu duzue dirua?

—Denboraldi hasieran polo urdin batzuk atera genituen. Honegaz bi gauza lortu gura genituen: alde batetik, diru pixka bat lortzea; bestetik, eta seguraski garrantzitsuen, Erandioko Betiko Neskak ezagutaraztea, herriak gu ezagutzea, alegia.

—Nolakoa da emakumezkoen futbola-

ren egoera?

—Urtero gorantz doala uste dut, hazten doa. Behintzat lortu dugu jendeak gu ez ikustea zomorro arraroak bagina bezala. Emakumezkoen futbola eta gizonzkoena berdinak direla ikusarazi diogu jendeari.

—Hori aipatu duzula... oraindik ere alde handia dago bien artean. Gizonezkoena eta emakumezkoena paretzen al doaz?

—Pixkanaka-pixkanaka paretzen doazela koan nago. Baina esan bezala, oso astiro doa paretze hori. ◊

moda gaztea
opariak

IRATI

Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

LUBERRI
Basolanak S.L.

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Piano jaialdia

Emaitza **oso onak** lortu dituzte Erandioko Musika Eskolako ikasleek *Andoaingo Piano Jaialdian*



Jaialdian parte hartu zuten Erandioko Musika Eskolako musikarietako batzuk

Otsailaren 23 eta 24an Andoaingo Piano Jaialdia ospatu zen eta, iaz bezala, Erandioko Udal Musika Eskolako 18 ikasleek hartu dute parte.

Eduarne Zorrozua Erandioko Udal Musika Eskolako arduradunak azaldu duenez, ikasleak oso pozik etorri dira lortutako emaitzakaz. Bost ikaslek urrezko domina lortu dute, hamaika ikaslek zilarrezko domina eta azkenik, brontzezko domina, bi ikaslek lortu dute.

Seiasle elkarteak jaialdia antolatzeari ekin zionetik, aurtengoa hirugarren edizioa izan da. Zortziehun lagun baino gehiagok hartu du parte aurtengoan. Antolatzaileen esanetan, dagoeneko ezin dute kopuru hori

gainditu. Bizkaitik ikasle gehien aurkeztu duena Erandioko Musika Eskola izan da: guztira, 18 ikasle. Bakarlarrien hiru mailetan (A, B, C, adinaren arabera) parte hartu dute eta baita lau eskutarako C mailan ere. Eskolako arduradunen esanetan, *“ekitaldi honek ilusioa eta jotzeko gura sorrarazi ditu ikasleengan, eta horregatik piano mintegian parte hartzea bultzatzen dugu”*.

Parte hartzeko gehienez 16 urte eduki beharra dago. Parte-hartzaile guztxi domina eta diploma banatzen zaizkie. Ondoen jotzen dutenek bukaerako kontzertuan jotzeko aukera izaten dute. Bestalde, *“jaialdiko antolaketa zuzena, arina eta eraginkorra izan da”*, adierazi du Erandioko Musika Eskolak. ○

KONTSUMOARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Erandioko Udaleko Osasun Publiko eta Kontsumo Sailak kontsumoari buruzko jardunaldiak egingo ditu Altzagan eta Astrabuduan. Aurtengo edizioan honako gai hauek jorratuko dituzte: *Dieta mediterraneoak emakumearentzat dituen onurak* eta *Digestio arazoentzat dituen dietetikoak*. Hitzaldiak Astrabuduako Josu Murueta kultur etxean eta Erandioko Emakumeen Elkarte Sozio-kulturalaren lokal berrietan izango dira, arratsaldeko 17:30etik 19:00etara. Hitzaldiak emango dituztenak HEZI nutrizio zentroko adituak izango dira. Apirilaren 11n *Dieta mediterraneoak emakumeentzat dituen onurak* hitzaldia izango da Altzagan eta apirilaren 18an, berriz, Astrabuduan. *Digestio arazoentzat dituen dietetikoak* urriaren 10ean emango dute Altzagan eta urriaren 3an Astrabuduan.

AUZOTARREK JAUNENE PLAZA OINEZKOENTZAT IZATEA ERABAKI DUTE

Jaunene enparantzaren inguruan bizi diren 200 bat familiek Astrabuduako plaza oinezkoentzat izatearen alde bozkatu dute, botoen %70ekin. Ondorioz, aipatutako enparantzatik ezingo da autorik ibili. Astrabuduako hainbat toki bezala, Jaunene inprobisaturiko parking-a bihurtu da azken boladan. Auzotarrak egoeraz kexu ziren eta herri-konsulta bati esker konponbidea aurkitu dute, soilik oinezkoentzat izatea, alegia.

OBIOETAKO OBREK KOTXEEN ZIRKULAZIOA ALDATUKO DUTE

Hurrengo sei hilabeteetan Altzagako trafikoa aldatuko dute, Obioeta kaleko hobekuntzak bukatu ahal izateko. Horrela, Txorierrri eta Txinbo kaleen arteko zatia moztuta egongo da hurrengo egunetan.

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

EUSKADIKO CROSS TXAPELKETA IRABAZI DU MUNARRI TALDEAK

Otsailaren 24an Euskadiko Cross Txapelketako El Refor ibilbidea ospatu zen Amurrion. Berriro ere, parte-hartzaile ugari bildu ziren bertan, tartean Munarri Atletismo Taldeko kirolariak zeudelarik. Sopelako taldea sailkapen orokorrean lehenengo lotu zen eta Begoña Minayo Gutierrezek beteroenen mailan lasterketa irabazi zuen hurrengo markagaz: 22.04.01. Aipatu beharra dago txapelketara aurkeztutako Munarri Taldeko emakumeetatik hiruk lehenengo zazpi postuetan gelditzea lortu dutela. Hori bai marka!

GAZTE INFORMAZIO BULEGOAK IKASTARO BERRIAK ANTOLATU DITU

Sopelako Gazte Informazio Bulegoak gazteei zuzendutako hainbat ikastaro antolatu ditu aurtengo egitarauaren baitan. Oinarrizko Mekanika Ikastaroan auto-gidabaimena duten sopeloztar guztiak parte har dezakete. Honen bitartez, gupila, haizetakoia eta bonbila nola aldatzen diren, kateak ipintzen eta olioaren maila ezagutzen ikasiko dute. Perkusio Ikastaroan, berriz, ikasleek bi orduko bost saiotan zehar tresna ezberdinen erabilera ikasiko dute. Bestalde, Gorputz Adierazpen Ikastaroa kultur aretoan egingo da barikuro.

UDALAK BAT EGIN DU BERDINTASUNERAKO GUTUN EUROPARRAREKIN

Sopelako Udalaren osoko bilkurak aho batez onartu zuen Eudelek (Euskadiko Udalen Elkarte) Emakumeen Nazioarteko Eguneko Adierazpen Instituzionalean hartzen duen Tokian Tokiko Bizitzan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Gutun Europarra. Udaleko alderdiek aho batez onartu zuten proposamena.

Eskakizuna Jaurlaritzari

Sopelako Udalak **Batxilergo eta DBH** ikastetxea eskatu dio Hezkuntza Sailari



Sopelako institutua

Udalak herrian Batxilergoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ikasketak egin ahal izateko zentroa eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendua.

Eskaria onartzuz gero, "*herriak hezkuntza publikoko programa osoa edukiko luke, hezkuntza mapa berriaren baitan*" nabarmendu du Udalak. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gaur egungo hezkuntza mapa 1996ko urtarilaren 30ean onartu zen dekretu baten bidez eta udaleko arduradunen esanetan, "*12 urte joan dira eta aldaketa asko gertatu dira, ez bakarrik hezkuntza sisteman, baita Sopelan bertan ere*".

Nabarmendu dutenez, 2010ean Sopelan 1.500 etxebizitza berri egitea aurreikusten da, eta era berean, herritarren kopurua handituko da, baita eskolaratzeko adinean dauden familia gazteena ere. Gainera, Imanol Garai alkateak azpimarratu duenez, "*herrian jaio-tza-tasa altua dago, Uribe Kostako udalen aldean %50 altuagoa*".

Horregatik, Sopelako Udalak eta Ikastetxeko Batzordeak ezinbestekotzat jo dute "*Batxilergoa eskaintzen duen ikastetxe bat, neska-mutilek herritik joan beharrik izan ez dezaten*." Eskaria onartzearekin batera, Sopelan ikastetxe berria eraiki beharko litzateke. ○

LAIAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

Egoitz Lataillalde > AIB elkarteko kidea

“AIB, lagun arteko proiektua, larregi hazi zen; geure artean eroateko, gehiegi”



AIBko taldekideak

Hiru urteren ostean, AIB (Asociacion Internauta de Bodyboard) elkarteak desagitea erabaki du, Egoitz Lataillalde kideak esan duenez, gehiegi baitzen lagun artean eroateko. Berak gomendatutakoaren arabera, AIBk interneten utzitako hutsunea www.eltubero.com sareko plataformak beteko du aurrerantzean.

—Zer asmoz sortu zen AIB?

—Bodyboard sustatzeko, egoera oso txarrean baitzegoen. Honen inguruan, surfean ez bezala, ez zegoen ezer antolaturik: ia ez txapelketarik, EHSFk (Euskal Herriko Surf Federazioak) urtean hiru txapelketa besterik ez zituen antolatzen. Orduan, lagun batzuk batzea erabaki genuen eta jendeak etxean egindako bideoak proiektatzen hasi ginen. Web orri bat ere egin genuen: www.aibbodyboard.com.

—Zelan bururatu zitzaizuen bodyboard internet bidez sustatzea?

—Esan bezala, web orri batez hasi zen proiektua. Pixkanaka-pixkanaka jendeak animatzen gintuen eta ideia berriak proposatzen zizkigun. Denbora pasa ahala, handitzen joan zen proiektua: Sopelako jaietan proiektioak eskaini genituen, horren ostean Algortako

taberna batean etab. Eta azkenik txapelketak antolatzeari ekin genion. Guztira hiru txapelketa antolatu ditugu eta inoiz egon den jende gehiena batu izan da bertan.

—Lagunen arteko proiektua zela aipatu duzu, grabatzean ere lagunak bakarrik grabatzen zenituzten?

—Ez. Bodyboard esparruan Euskal Herriko mugitzen den guztia grabatzen genuen. Askotan kirolari oso onak grabatzen genituen; Frantziatik esaterako, bazetozen oso onak ziren batzuk eta grabatzen genituen. Horretaz aparte, Bartzelonako baten bat ere grabatu dugu, kantabriarrak, galiziarak... Baina batez ere, inguru honetako jendea grabatzen genuen.

—AIBk egin duen guztiaz, zer azpimarratuko zenuke?

—Antolatutako hiru txapelketak: Jende pilo bat hurbildu zen bertara. Baina zaleak hurbildu ez ezik, babesle asko ere etorri ziren. Hainbat babesle zituenez txapelketak, irabazleen artean ez ezik, edozeinen artean banatzen genituen babesleek emandako materiala. Udala ere oso ondo portatu zen gugaz: moduluak ordaindu zizkigun, kostalegea deiturikoa ere ordaindu zigun...

—Hiru urteren ostean, zelan eta zergatik erabaki duzue AIB desagitea?

—Bakoitzaren lanagatik. Elkarte barruan gau-

«Inoiz egon den jende gehiena batu izan da antolaturiko txapelketetan»

den guztiak jo eta ke gabiltza behar eta horrelako proiektua aurrera eroatea zaila da. Ordu asko eman behar genituen, gauera arte irauten zuten batzarrek... Lan asko zen. Elkarte sei pertsona geunden baina gehien egiten genuenok hiru besterik ez ginen, besteek beharra dela eta ezin baitzuten gehiago lagundu. Lagun arteko proiektu gisa sortu bazen ere, azken boladan oihartzun handia lortu zuen AIBk (txapelketak besterik ez ditugu begiratu behar), eta geure artean eroateko gehiegi zen. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

GAZTE PLANA MARTXAN JARRI DUTE PLENTZIAN

Plentziako Udaleko Gazteria Sailak Gazte Plana sortzeko prozesua abiarazi du. Honetan, herriko gazte guztiak parte hartzea gura du Udalak eta horretarako hainbat baliabide jarri ditu. Etxebizitza, lana, ikasketak edota aisialdian dauden gabeziak identifikatu eta hauei alternatibak bilatu gura dizkiete egitasmoaren bultzatzaileek. Gazteen ekarpenak jasotzeko, gazteplana.plentzia@bizkaia.org helbidea eta 94 677 55 41 informazio zenbakia martxan jartzeaz gain, telefono bidezko inkestak eta bilerak egingo dituzte. Bestalde, herriko txoko ezberdinetan jarritako postontzietan ekarpenak uzteko aukera dago.

UMEENTZAKO EKINTZAK BARRIKAN

Martxoaren 29rako txotxongilo emanaldia antolatuta du Barrikako Udalak. Hau Mari Teatro taldearen eskutik etorriko da eta liburutegi zaharrean izango da eguerdiko 12etan. Honez gain, apirilaren 5ean eta 19an umeentzako dantza tailerra, 11:00etan eta Kung Fu tailerra, 12:00etan, eskainiko dira.

ANDRA MARI AUZOAREN BIRMOLDAKETA LANAK

Exbasa, Obras y Servicios enpresa izango da Gorlizko Andra Mari auzoaren birmoldaketaz arduratuko dena, 2.400.000 euroko aurrekontuarekin. Birmoldaketarekin 125 etxebizitza berri, gune berdeak eta oinezkoentzako bideak eraikiko dira, beste gauza askoren artean.

GORLIZ

Udan Saharako umeak hartzeko familiak behar dira



Udala 7-12 urte bitarteko ume sahararrak etxean hartzeko prest dauden familien bila dabil

Zortzi urte pasa dira dagoeneko Gorlizko Udalak Saharako Güera herriarekin adiskidetzea burutu zuenetik. Hori dela eta, hainbat ekimen jarri ditu martxan denbora honetan eta horietako bat da *Oporrak bakan* proiektua. Horren bidez, Gorlizko familietan bizi ahal izango dira udako hilabeteetan Saharako umeak.

Ekimen hau aurrera eraman ahal izateko gorliztarren laguntza behar du Udalak. Seme-alabak dituzten eta 7-12 urte bitarteko ume sahararrak euren etxeetan hartzeko

prest dauden familiak, apirilaren 10a arte izango dute izena emateko aukera udaletxean; bertan tramite guztiak egin ahal izateko beharrezkoa duten informazioa aurkituko dute. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila osasun-azterketez arduratuko da; Gorlizko Udala, aldiz, joan-etorrien gastuez, aseguruez eta begiraleen gastuez. Beraz, umeen mantenuaz eta basamortuko udako temperatura jasanazinetatik aldentzeko eta ondo pasatzeko aukera emateaz soilik arduratu beharko dira familiak. ○

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz

Mar. 17 - api. 3

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Euskal itsasgizon gorenak**. Butroiko Plasentia Museoa. Urrira arte.

GETXO

► **Edgar Ferreren olioak**. Algortako erakustaretoa. Martxoaren 29ra arte.
► **Lucia Polancoren olioak**. Algortako erakustaretoa. Martxoaren 31tik apirilaren 12ra.

LEIOA

► **Bosteko**. Erakusketa aretoa. Martxoaren 10etik apirilaren 6ra.

MUSIKA

ERANDIO

► **BOSen Ganberako kontzertuak**. Josu Murueta Kultur Etxea. Martxoak 30, domeka. 19:30. Sarrera: gonbidapenagaz.
► **Bertoko II. Musika Jaialdia**. Altzagako kaleetan zehar. Apirilak 5, zapatua.

LEIOA

► **Cesar Uceda**. Auditorium. Martxoak 29, zapatua. 20:00.


GETXO

► **Rouaille-Buaille**. The Piper's Irish Pub. Martxoak 14, barikua. 22:00.

ZINEMA

GETXO

► **Mimzy, más allá de la imaginación**. Getxo Antzokia. Martxoak 23, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Sarrera: 2,10 euro.
► **La aventura de las águilas**. Getxo Antzokia. Martxoak 25, martitzena. 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Sarrera:



► **Esaera zaharrak**

XV. Esaera Zaharren Txapelketa

Egun zoragarria igarotzeaz gain, txapelketa honen bitartez esaera zaharrak ezagutaraztea eta erabilaraztea dute helburu antolatzaileek. Txapelketak hiru zati dauzka: eguerdian herrian zehar lehenengo fasea (kanporaketak), ostean Ander Deuna ikastolako jantokian herri-bazkaria gura duten guztientzat, eta bazkalostean final handia. Txapelketa honelaxe egiten da: izena ematean talde parte-hartzaileei esaeren zerrenda ematen zaie (100 atsoitz, haietako bat berria) eskura edo posta elektronikoz. Euren lana esaerok ikastea izango da, txapelketa egunean ezin baita zerrenda erabili. Aurten Nerea Elustondo eta Igor Elortza izango dira txapelketan.

• **Non:** Ander Deuna • **Noiz:** Apirilak 12 • **Ordua:** 11etan.

► **Piccolo & Saco**. Getxo Antzokia. Martxoak 26, eguaztena. 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Sarrera: 2,90 euro.

► **Fast food nation**.

Getxo Antzokia. Martxoak 26, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.

► **Lassie**. Getxo Antzokia. Martxoak 27, eguena. 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Sarrera: 2,10 euro.

► **Winkyren zaldia**. Getxo Antzokia. Martxoak 28, barikua. 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Sarrera: 2,10 euro.

► **Across the universe**.

Getxo Antzokia. Martxoak 28, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

LEIOA

► **Expiación: más allá de la pasión**. Auditorium. Martxoak 17, astelehena. 20:00. Sarrera: 3 euro.

► **La boda del monzón**. Auditorium. Martxoak 18, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **Mi vida sin mí**. Auditorium. Martxoak 25, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Gajos de la vida**. EHUko Antzerki Taldea. Areto nagusia. Apirilak 2, eguaztena. 9:00.

BESTEAK

PLENTZIA

► **XXI. Ibilaldi neurtua**. Apirilak 6, domeka. 9:00.

BARRIKA

► **Txontxongiloak**. Kultur Etxea. Martxoak 29, zapatua. 12:00.

GETXO

► **Hadabruja** liburuaren irakurketa. La Gusana liburutegia. Martxoaren 22, zapatua. 12:30.

► **Txorimalo gaztetxeko II. urteurrena**.

Txorimalo gaztetxea. Martxoaren 25etik 30era.

► **Muy famoso** liburuaren irakurketa.

La Gusana liburutegia. Martxoak 29, zapatua. 12:30.

ERANDIO

► **Txangoa Aumategi mendira**. Erandioko metro geltokia. Martxoak 30, domeka.

► **Ibilbide kulturala: Artziniega**. Metro geltokia. Apirilak 1, martitzena.

► **Kanpomartxo**. Martiartu. Apirilak 6, domeka.

SOPELA

► **XV. Esaera Zaharren Txapelketa**. Ander Deuna. Apirilak 12, zapatua. 11:00.

GORLIZ

► **Jaioberriei masajeak egiteko ikastaroa**. Erakusgela. Martxoak 29, zapatua. 11:00.

SATISTEGI

CAFÉ



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Klasikoen doinura

Udazkena izan ohi zen Getxoko Kultur Etxeak musika klasikoari begirako emanaldiak antolatzeko garaia. Aurten ostera urtaroz aldatu ditu kontzertuak eta Udaberriko Kontzertuak izenagaz bataiatu. Emanaldion XXII. edizioa izan da aurtengoa eta, besteak beste, irudiotan dituzuen musikariek eta abeslariek hartu dute parte: Patrizia F. Colomer eta Mario Lerena, Felix Ayo eta Emma Jimenez, Jeremy Manuhin, Pablo de Naveran eta Philippe Graffi, eta amaitzeko, Bartzelonako Orkestra Sinfonietta.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





[argazkia]





Gaztelua

XX. mende hasieran, Arrigunagako hondartza gaineko zelaian zegoen argazkian ikus dezakezuen gaztelua. Oraindino, eraikinak ematen dio izena zonalde horri (“castillo” deitzen diote askok eta askok), nahiz eta, gaur egun, San Juan suen arrastoak eta etxebizitza gutxi batzuk dauden soilik. Auskalo nortzuk bizi ziren gaztelu barruan, luxuz inguratuta eta herriko bista politenatarikoak aurrean zituztela, itsasoaren handitasunaren magalean.

[berbetan]

Hamar urte bete zituen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak abenduaren 6an. Milaka eta milaka lagun babesa jaso zuen lehenengo ekimenean, Euskal Herriko bost futbol estadio leporaino bete zituenean. *Bai Euskarari!* leloa aspaldikoa zen ordea, 80. hamarkadakoa. Gaur egun, ordea, leloa ez da modaz pasatu, zoritxarrez. Baina bada garaia beste urrats bat egiteko. *Bai Euskaraz!* esateko ordua irtsi dela uste du Xabier Mendigurenek, Kontseiluko idazkari nagusiak. Hamargarren urteurrenak inflexio puntua ezarri du eta erronka berriei helduko diete. Euskal unibertsitatea sortzeko prozesuan ere buru belarri sartuta dago erakundeak.

X. Mendiguren

Kontseilua, ez da aholku hutsa

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Kontseilua**

—Kontseiluak hamar urte bete ditu. Nola joan dira?

—Sortze prozesua 1995ean hasi zen, Euskararen Unibertsoa mugimenduari. Bi urteren ondoren jardunaldiak egin ziren Donostian. Abenduaren 6an bete genituen hamar urte. Talde txikia ginen eta gure bidea eta tresnak sortu behar izan ditugu. Laguntza handia jaso dugu bide horretan gizartetik, bai ekonomikoki, baita lankidetzaz eskainiz ere.

—Zein zen hasierako helburua?

—Argia zen. Euskararen normalizazioan eragin gura genuen, behar hori zegoela ikusi genuen eta euskararen munduan lanean genbiltzan hainbat elkarte batu ginen Kontseilua sortzeko. Etorkizunean ere, hori izango da helburua. Egunduko 46 elkarte gara. Instituzioek egiten duten lanaren parean eta alkarregaz, ahal dela, aurrera eramanez gura dugu euskararen normalizazioa, ikusten baitugu ez dela aurreratzen gura genukeen adina. Baina gure lanaren balantze baikorra egiten dugu. Tresna garrantzitsuak sortu ditugu, Bai

Euskarari Ziurtagiria eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia tartean.

—Bai Euskarari kanpainagaz hasi zintez. Oso ekimen arrakastatsua izan zen, bost futbol estadio bete zenituzten eta. Nolako eragina izan zuen?

—Ekimen indartsu batekin plazaratu gura genuen Kontseilua, inork ez baitzuen eza gutzen. Abiapuntu indartsua izan zen ondorengo urteei begira. Harekin batera, “Lanordu bat euskararen alde” ekimena egin genuen, sindikatu eta patronalarekin batera. Hari esker, 180 milioi pezeta bildu genuen eta plangintza estrategiko bat

“Euskararen normalizazioan eragin gura genuen eta euskararen munduan genbiltzan hainbat elkarte batu ginen”

bideratu ahal izan genuen. Tresna batzuk abian jartzeko urrats garrantzitsuak izan ziren. Gero etengabe etorri dira urratsak.

—Nola bizi izan zenuten sorrera prozesu hori?

—Hasieran hiru lagun ginen eta hutsetik

abiatu ginen. Kanpaina erraldoi hark jendea pentasartzen zion egundoko elkarte ginea. Baina talde txikia ginen, bitarteko gutxirekin.

—Non egon zen arrakasta lortzeko gakoa?

—Lehenik eta behin, euskalgintzak eta gizarteak zeukaten nahia zegoen, eta laguntzeko erakutsi zuten prestutasuna. Bestalde, ETAk su-etena egin zuen garai hartan. Horrek ilusioa sortu zuen hainbeste urtetako sufrimendua bukatuko zelakotan eta asko lagundu zuen jendea biltzen. Sindikatuek eta elkarteek ere parte hartu

zuten eta euskararen aldeko olatu erraldoia bilakatu zen.

—Bai Euskarari Ziurtagiria aipatu duzu. Zertan dago orain?

—Elkarte propioa sortu berri du. Kontseiluarekin lotura baldin badu ere,



bide autonomia egiten du, babesle eta bazkideen laguntzaz aurrera doa. Euskal Herri osoan dago hedatuta, 1.500 ziurtagiri banatu dira zazpi urtetan. Etorkizunean ere urratsak gero eta indartsuago emango dira. Bidea hor dago eta indarrak bildu eta gizartean eragitea da helburua. Urtero bere ekitaldi nagusia antolatuko du, orain arte legez, eta gizarteari gogoraraziko diogu ezinbestekoa dela lanaren munduan euskara sartzea eta erabiltzea, datozen belaunaldiak aukera izan dezaten ikasketa garaian ikasitako euskara gero lanean erabiltzeko.

—Hizkuntz Eskubideen Behatokiak ere bere lana egin du.

—Izenak berak adierazten duen legez, euskararen eskubidea herritarroei babestea da helburua. Gu ohartuta geunden, nahiz eta euskaraz bizitzeko eta euskara erabiltzeko gogoia izan, euskaldunoi egoera askotan ezinezkoa zaigula hori, ezintasun askorekin topo egiten dugulako. Ez daude beharrezko bitartekoak eta gure eskubidea ez dago bermatuta. Horregatik, beharrezko ikusi genuen eskubide hori aldarrikatu, betetzen ez denean kexak jaso eta hurrengorako oztupo hori gairitzen lagunduko zuen erakundea sortzea. Ideia arrakastatsua izan da, gerora Katalunian eta Galizian parekoak sortu dituztela ikusita ere. Zenbaitetan elkarrekin egin dira ekintzak, hizkuntza gutxituek dituzten zailtasunak gogorarazteko eta hiztunek topatzen dituzten arazoak ezagutarazteko. European eta Europatik kanpo ere, harreman ugari egin ditu Behatokiak. Prebentzio lana ere egin du. Eraikin berri bat sortzerakoan hasieratik egonez gero, askotan aurretik egin daitezke kartelak bi hizkuntzatan euskararen presentzia bermatuz, gero alferrik aldatu ordez.

—Hasierako helburuak betetzen doaz?

—Aipatu ekimenetan argi ikus daitezke fruituak. Batzuetan erantzun positiboak lortzen dira, besteetan ez, denbora gehiago beharko da, baina bistan dago konpromisoak hartzen dituzten enpresetan euskararen aldeko giroa hobetzen doala. Oraindik ez dira nahiko genukeen beste, txikiak dira,

Euskal Herrian milaka enpresa dago, baina abiapuntu interesgarria da eta hortik jarraitu behar dugu. Hau prozesu luzea da, baina bizkortu gura genuke. Gizarteari hori eskatu behar zaiola uste dugu, ahaleginak egitea guztioi baitagokigu. Urte hauetan beste gauza garrantzitsuak ere egin ditugu, akordio sozio-politikoak, esaterako. Hamaitak alderrdik eta sindikatuk sinatu zuten.

koa da euskararen normalizazioan aurrera egin gura badugu. Euskaraz bai adierazpena argitaratu dugu, euskara nola ikusten dugun jasotzen duena. Ahalik eta hedapen zabalena emango diogu eta haren aldeko atxikimenduak biltzen hasiko gara laster. Urteurrenaren harira, abenduaren 13an ekitaldi jendetsua egingo dugu euskararen aldeko jarrera, poza eta lana gogoratzeko.

“Urteurrena mugarrria izango da, urrats berriak emateko aukera izango delako”

Horren ondorioz gauza interesgarriak lortu dira. Adibidez, hizkuntza politika bat nola sakondu. Udaletako euskararen aldeko hizkuntza politikak sakontzea beharrezkoa dela konturatu gara.

—Bai Euskarari zikloa amaitu eta Bai Euskaraz zikloari ekin behar diozue.

—Hamar urte hauen ondorioetako bat da. Hamar urtez Bai Euskarari esaten ibili gara eta asko eman digu, euskarak behar baitu hitz egiten ez duten euskaltzaleen laguntza. Hau da, gizartearen gehiengo baten babesa, adostasuna eta bultzada. Baina horretan sakondu behar da eta Bai Euskaraz esan behar da. Euskarak behar du ikasia eta erabilia izatea. Hori azpimarratu nahi dugu hamargarren. urteurrenean. Hemendik aurrera, bata baztertu gabe, bestean sakontzen saiatuko gara. Horregatik parte hartu

Orain datozen erronkak aztertu eta aurrera begira bideak irekiko ditugu. Urteurrena mugarrria izango da, urrats berriak emateko aukera izango delako, zeregina garbi ikusten baitugu.

—Azken urteotan hainbat eraso jasan ditu euskalgintzak eta Egunkariako auzipetuei elkartasuna adierazten ikusi zaitugu orain gutxi. Nola kokatzen duzu eraso hori?

—Ez da oraingo kontua, orain hamar urte ere horrelakoak ikusten genituen. Badakite euskarak nolako garrantzia duen gure etorkizunerako eta bistan dago Espainiako estatu inondik ere ez dutela nahi herri bakoitzak bere hizkuntza eta kultura gartztea. Horren kontra arituko dira beti, aitzakia batekin zein bestearekin. Ez gaitu gehiegi harritzen, baina aurre egin behar diogu. Horretarako indarrak biltzea beste irteera-

“Askotariko erasoak daude eta horietako bat da hizkuntzaren aurkakoa, ezin liteke isolatu”

dugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, irakaspen ereduak gainditzeko dokumentua prestatzen. Behingoz lortu dugu irakaskuntzaren sektoreko elkarteek bat egitea dokumentu batekin, irakaspen ereduak gainditu behar direlako. Hori lortzeko aldaketa ondo egin beharra dago. Haur eta gazteak euskalduntzea beharrez-

rik ez dago. Ziur egon behar dugu etorkizunean herri bezala zerbait izan nahi badugu, bide horretan jarraitu behar dugula, gure hizkuntza garatu behar dugula, Europako beste edozein herri legez, handi edo txiki izan. Gurea egiten gabiltza, ez diogu inori kalterik egiten eta gainera, gure irakaskuntzan bi hizkuntza ez, hiru parez pare ikastea

posible eta aberasgarria dela erakutsi dugu, eta aurrean dugun munduan hori ezinbesteko zaigula. Eraso horiek denborak hutsean utziko ditu, geure artean indarrak bildu eta nora joan gura dugun argi izanez gero. —Euskalgintzaren aurkako eraso da, ala eraso orokor baten baitan kokatzen da? —Gauza hauek eraso orokorrak dira. Maila askotakoak daude, ikusi besterik ez dago politika mailan gertatzen ari direnak, instituzio mailan, alderdien mailan, ilegalizazioak... Askotariko erasoak daude eta horietako bat da hizkuntzaren aurka zuzendutakoa. Ezin liteke isolatu. Hemen herri bat dago, bere eskubideak ditu, etorkizuna landu eta bizi gura du eta norabide horretan ematen dituen urratsak beste batzuei ez zaizkio egokiak iruditzen eta aitzakiekin eraso egiten dute. Oso aspalditik gertatu da hori Euskal

Herrian. Ikasi beharko genuke ahalik eta ondoen geure burua babesten, funtsezkoak ez diren gauzetan geure indarrak eta denbora galdu gabe.

—2010erako euskal unibertsitatea abian jarriko dela iragarri berri duzue. Zergatik eta zertarako?

—Benetan egiazkoa gerta dadin, benetako euskal unibertsitate bat izan dadin, Euskal

dik hutsune nabarmenak ditu. Unibertsitate pribatuetan euskararen presentzia oso mugatua da, bestalde. Beraz, hasieratik eta baldintza guztiekin euskararen aldeko apustua egingo duen unibertsitatea behar dugu. Udako Euskal Unibertsitatea horren aurrekari bat izan da urtetan eta su hori pizten eta gordetzen saiatu da. Hortik sortzera doa euskal unibertsitatea.

“Hasieratik eta baldintza guztiekin euskararen aldeko apustua egingo duen unibertsitatea behar dugu”

Herrian sortua eta Euskal Herri osorako. Euskal Herriak bere ardatz unibertsitario bat izan dezan sortuko da, egungo UPV edo Euskal Herriko Unibertsitatea ez baita erabat hemen kudeatutakoa. Euskararen alorrean urratsak eman baditu ere, orain-

Europako aldatetz eta Bologna prozesuaz jakitun, epe laburrean gauza asko eta on egin ditzake. Zortzi karrerarekin hasiko da eta oso emankorrak izango dira. Beste aro bateko unibertsitatea izateko bokazioa izango du hasieratik.

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

[fotografia]



Drama eta duintasuna

Pasa den urteko Getxophoto jaialdian ikusi ahal izan genuen Numo Ramaren (Arauna, Brasil, 1968) *Humanos* argazki erakusketa. Bere argazki moldeaz zera esan zuen jaialdiko komisario Alejandro Castellotek: *“Numo Ramaren argazkietako protagonistak gizakia eta eguneroko bizitzaren epopeia dira; ikus daitekeen metafora bat, oso subjektiboa, bizirauteko eguneroko borrokaren izaera primarioa garraiatzen gaituena... Eskasia, estutasuna, drama, indarkeria eta miseriaz beteriko eszenatokiak dira, alabaina, bertara heltzeko ere, itxaropenak eta duintasun gogoak aurkitzen dute sartzeko zirrikitua...”*

Argazkiak: **Numo Rama**



[fotografia]





[fotografia]





[fotografia]





I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Berri txarrak usteldu dira Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilerak bidea egiten jarraituko du



Midori filma sarituetako bat izan zen pasa den jaialdian

Eskerrak! Eskerrak berri txarrak ere usteltzen diren. Otsail hasieran jakinarazi zuten Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilerako (EZBB) antolatzaileek zinemaldia eta lehiaketaren ibilaldia eten, gelditu egin behar zutela. Erabakiari azpitik ohiko dirulaguntza faltaren kiratsa zerion. Iaz bete zituen 30 urte EZBBk eta urtemuga igaro ezin zutela onartu behar... Eta euskara huts ez egiten den zinemaldi bakarraren azkenengo pantailan *Amaiera* irakurri genueneko oroitzapenera ohitu beharko genuen... Drama baten ostekoak baino, gogo handiago izan genuen beldurrezko film bat osteko malkoak botatzeko. Hiru hamarkadatan jaioberria umetu egiten da, nerabezaroa gaintitzen du eta heldutasunerako prestatzen du bere burua; baina euskal kulturaren, oro har, euskal zine munduan batez ere, eta Lekeitioko EZBBn zehazki, urteetan egindako esfortzuak eta gaitututako nekeak eta aurrera egiteko gogoek ez dute etorkizunerako garaia jorratzeko, prestatzeko bermerik ematen. Alabaina, oraingoan,

berri txarrak usteldu egin dira, ibilbidean emandako pausok bidea egiten dute eta ibiltariaren ibilkera zuzentzeko makulua eskaini dute erakundeek. Oihala jaisteko erabakia entzun ostean hurbildu zen Lekeitioko Udala EZBBren antolatzaileen-gana, eta behe jo baino lehen akordio batera heltzea lortu dute. Hurrengo urteetan zinemaldia eta lehiaketa antolatzen jarraitzea adostu dute, eta irtenbide hori "behin-behinekora" bada ere, ekimena bertan behera uzteko eperik ipini ez dutela

«Aurtengo EZBB azaroaren 17tik 22ra izango da eta filmak aurkezteko epea zabalik dago»

argitu dute. Ohiko zenbait antolatzaile jaialdia aurrera eroratez-eta arduratuko dira, Udalak arlo ekonomikoa eroango du.

Aurtengo ekitaldia azaroaren 17tik 22ra izango dela iragarri dute, lanean dihardute dagoeneko; eta lanak aurkezteko epea zabalik dago irailaren 1era arte. ○

Aspaldiko partez lan berria

Apurtu arte, zortzigarren diskoa 14 abestigaz osatu du Lekeitioko seikoteak



Sei buzezurrak berriro ere sormen lanean

Oholtzako zuzenekoak sekula utzi ez badute ere, aspalditik ez zioten "sormenari" eusten. 1987an Lekeitioko orduko gaztetxean eman zuten taldeak lehenengo kontzertua, eta pausoz pauso 1991n ekoizti zuten *Amen* lehenengo maketa, hurrengo urtean kaleratu zuten estreinako diska: *Etsaiak*. Ordutik eta 1999ra arte 7 bat lan argitaratu zituzten: Iraultza, Presoak S.O.S, Gerra zikina, Bakearen Guda, Askatasun taupadak... eta horrez gainera hainbat bilduma eta bira-dokumental.

Punk-thrash-hardcore-metal estiloetan egin du beti uger talde lekeitiarrak eta martxo hasieran

aurkeztu berri duten zortzigarren diskoan ere ez dira doinuok falta. Aurkezpen oharrak dioen legez, "kantu bortitzak, inoiz ez epelak. Zuzenak testuetan, okerrik ez musikan..."

Hala, 14 abestiz osatutako lana prestatu dute eta *Apurtu arte* izena eman diote, izen bereko kantu bat ere bada disko berri honetan. Lan berria aurkeztu bezain pronto ekin diote mutilok lanari eta dagoeneko eman diote hasiera aurkezpen birari. Iragarri dituzten kontzertuen artean, hurrengoak daude: hilak 21 Gazte Topagunean (Lezo, Gipuzkoa) eta hilak 28 Zorrotzako gaztetxean.

Informazio gehiago: www.etsaiak.net

bira >

Extremoduro



Aspaldian ez genituen oholtza gainean ikusten, zuzenean entzuten; orain dela 4 urte egin zuten azkenengo bira. Baina zaleak zorioneko daude rock

talde ezagunak bira berria iragarri du eta. Horrez gainera, disko berria prestatzen dabilzala ere jakinarazi dute. Lan berria kalean noiz egongo den ez dute esan oraindik, baina biran abesti berri horiek kantatuko dituztela adierazi dute. Birako lehenengo kontzertuaren data besterik ez dakigu momentuz, maiatzaren 17an izango da Santanderreko Kirol Jauregian. Gainontzeko kontzertuen berri webgunearen bitartez emango dutela azaldu dute Extremodurokoek, dena dela, 45-50 kontzertuko bira izango dela eta eta azarora arte iraungo duela aurreratu dute.

Informazio gehiago:
www.extremoduro.com

nazioartean >

Standard

Standard talde getxoztarrak kontzertu bat eskaini du AEBetan orain dela gutxi, martxoaren 12tik 16ra Austinen (Texas) egin den South by Southwest jaialdian. Dena dela, ez dira bakarrik ibili, jaialdi horretan egon ez badira ere, Delorean taldeak ere egun horietan kontzertu bat eskaini zuelako Austinen bertan. Plataforma batek gonbidatuta joan dira eta Espainiako beste talde batzuk ere hartu dute parte bertan, esaterako hurrengoek: Dorian, Love of Lesbian, Jet Lag, Mala Rodriguez...

diskoak

Republic Disgrace
Thunder Express
Bloody Hotsak



Robert Dahlqvist, Hellcopters taldeko gitarra jolearen taldea duzue hau. Thunder Express izena MC5ren kantu batetik hartu zuten 2004an kaleratu zuten lehenengo diskorako, rock&rolla uztartzen duen diskoa. *Republic disgrace* disko berrian aurrerapauso handia egin dute kantuen konposaketan eta moldaketetan.

Show Canibal
Ktulu
Maldito Records



L'Hospitalet de Llobregateko (Herrialde Katalanak) talde ezaguna dugu hau. Muro, Fuck Off eta Legion taldeak indartsu ari zirenean sortu zen Ktulu, 1987. urtean, hain zuzen ere. Ordutik hona taldeak zenbait aldaketa izan arren, trash metala jorratu du bere ibilbide osoan zehar. Azkeneko diska hau ere indartsu dator.

Kupela
Kupela Taldea
Elkar



Erromeria giroko taldea dugu Kupela, zuzenean zein disko lanetan zapore eta grazia berezia jartzen asmatu izan baitute orain arte. Alde batetik, alaitasun motiboak sorrarazten dituzte eta, bestetik, trikixari aire freskoak eta berrizaleak ekartzen dizkiote. Kupela kantuen "remix" dantzagarri bat ere aurkeztu dute disko honetan.

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Eusko Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Oraingoan, bizitza ospatuz *Jainkoa harrapatzeko tranpa*, Gerediagaren bigarren poema liburua

Orain dela 4 urte irakurri genituen Jon Gerediagaren lehengo olerkiak *Fitola balba, karpuki tui* (Pamiela, 2004) lan gordin hartan. Depresio batetik irten berrian, bizipen gogorrak eragindako garai latz baten ostean idatzi zituen bilbotarrak poema haiek eta liburuaren amaiera aldera argi izpiren bat iragar bazitekeen ere, oro har, poema liburu nahiko iluna da bere estreinako lan hura. Alabaina, desberdintasun nabaria dago lan hori eta orain dela hilabete pare bat argitaratu duen bigarren olerki bildumaren artean: *Jainkoa harrapatzeko tranpa* (Pamiela). Argi izpiek indartsuago berotzen dute honetan eta bizitzari kantatzen diola aitortu du bizkaitarrak, bizitza, bizirik egotea ospatzen

«Izenburuan eta kezketan Oteizarekiko lotura antzean dute adituek»

dutela olerkiek, bizirik egotearen esangura ezin duela zehaztu onartzen badu ere.

Hala, ez dihardu jainkoaz, ezta erlijioaz ere, jainkoa metafora legez darabilela adierazi du Gerediagak, zelan edo halan bizitzaren metafora bat ei da; eta bai batean zein bestean tranpak daude, zalantzen borrorak. J. A. Irigarayk Gerediagaren kezken eta Oteizaren kezken arteko lotura antzean du, bai lanaren izenburuan, baita Aritz



Jon Gerediaga (Bilbo, 1975)

Merinok azalera egindako irudian ere. Irigarayk hala azaldu du: *Quosque-tandem*-en Oteizak zioen Neolitoko gizonak otsoak ehizatzekeo tranpa fisikoak egiten zituela eta jainkoa ehizatzekeo tranpa metafisikoak. Argi dago, *Jainkoa harrapatzeko tranpa* bizitzako beste aro oparago batean idatzitako lana dela, poemak 2004tik aurrera izkiratu dituela azaldu du Gerediagak eta horietako asko Lekeitioko base-ri batean bizi zela idatzi zituela, horregatik-edo ei daude hain presente itsasoa eta natura.

Jon Gerediaga (Bilbo, 1975) idazle eta irakasle gain, FTI-Antzerkiola Imaginarioaren sortzaileetako bat ere bada, Ander Lipusegaz batera, eta Antzerkiolako antzerki lan interesgarrien gidoiak idazten parte hartu du. ○

liburuak



Ero
Jon Martin Etxebeste
Elkar

Traste zaharrak pilatzen dituen atsoa, adikzioaren ondorioz burmuinak nahastuta dituen gaztea, urteak betetzeari uko egin nahi dion gizon heldua... Istorio hauetako protagonista zoro batzuk besterik ez dira. Beste asko, berriz, itxura normalaren pean, gutako edozeinen ispilu izan litezke.



Mozorroaren xarma
Asel Luzarraga
Txalaparta

Zigor gaztea ez da ohiko euskalduna, inondik inora. Bere belaunaldikoak parrandan eta lagunartean dabilbitzan bitartean, berak bere mundu txiki, pribatu eta ezkutua du, bere logelaren lau hormen artean. Baina zer da ohikoa?

[kirola]

Familian kirolagaz gozatzeko Faduran haurrak zaintzeko gunea eta ostalaritzako hezkuntza-aretoa egingo dituzte



Fadurako kiroldegia

Fadurako kiroldegiko instalazioak zaharbertuko ditu Getxoko Udalak bi helburugaz: alde batetik, ostalaritzako gunea ohia berreskuratze-ko, eta bestetik, gurasoek kirola egiten diharduten bitartean haien haurrak zainduta egon daitezen gunea bat sortzeko.

Ostalaritzako antzinako eremuan aisialdirako eta enplegurako egitasmoa berreskuratzea eta bultzatzea erabaki du Tokiko Gobernu Batzarrak. Hala, ostalaritzako hezkuntzarako aretoa bat sortzeko asmoa dute Faduran. Horren albotik, kanpotik sarrera edukiko lukeen taberna-kafetegia berriro ere martxan ipiniko dute, eta udaldirako kanpoko igerilekuan ere tabernatxo bat zabalduko ei dute.

Egitasmoa bi zatitan garatuko dutela jakinarazi dute eta dagoeneko proiektua idazteko lehiaketa abian ipintzeko 100.000 euro bideratu dituzte. Egitasmoaren aurrekontu orokorra 1.620.000 eurotan zehaztu dute, eta Getxoko alkate Imanol Landak jakinarazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundiagaz lortutako lan-kidetza-hitzarmen bati esker erango dute proiektua aurrera. Hitzarmenaren ondorioz

Aldundiak 700.000 euroko diru-laguntza emango du. Esan legez, egitasmoa bi zatitan banatuko da: lehenengoan, kafetegiak, haurren zaintzarako gunea eta ostalaritzako hezkuntza-aretoa egitea aurreikusten dute; bigarrenean, kanpoko kafetegia eta jantokia egituratzea espero dute. Hala, lehenengo zatirako aurrekontua 1.370.000 eurokoa da eta bigarrenekoa 250.000 eurokoa. Lanak aurtengo azaroan

«Egitasmoaren aurrekontua 1.620.000 eurokoa da; 2009an martxan egongo ei da»

hasiko ei dira eta zerbitzuok hurrengo urteko udarako martxan egotea espero dute.

Bestalde, gurasoak kirol egiten dauden bitartean euren umeak zaintzeko gunearen inguruan, zera adierazi du Landak: *“Fadura familientzako topagune bihurtu nahi du egitasmo honek, eta Gobernu taldeak familiei zuzendutako politiketan beste urrats bat ematea ere bada”*. Amaitzeko, zerbitzuon kudeaketa lan-munduratzeko irabazi asmo bako enpresen esku uzteko asmoa dauka Getxoko Udalak. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVITEC



94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Lur Moragues eta Batirtze Lertxundi > Bilgune Feministako kideak

“Udalek berdintasun plana saltzen badigute ere, kaleetan publizitate sexista dugu”



Bilgune Feministako kideak dira biak

Apirilaren 12 eta 13an Jardunaldi Feministak burutuko dira Portugaleten. Egunera arte hiru jardunaldi ospatu dira, azkena 1994. urtean. Lur Moragues eta Batirtze Lertxundi Bilgune Feministako kideek azaldu dutenez, Euskal Herriko edozein emakumek har dezake parte Jardunaldietan. Bestalde, Emakume Gazteen Asanblada burutuko dute Euskal Herriko hainbat herritan, hala nola, Algortan, Leioan, Erandion eta Sopelan. Bertan, emakume gazteen egoera bereziki aztertuko dute.

—Zer jorratuko duzue apirileko jardunaldietan?

—Euskal Herriko historian lau jardunaldi feminista egin dira; azkena 1994. urtean burutu zen. Aurtengo erronka Euskal Herriko mugimendu feministak bere egoera eta borrokaren norabidea aztertzea da. Landuko ditugun gaiak hiru ardatzetan banatu ditugu: emakumea herrian eta munduan, hau da, parte hartze sozio-politiko, interkulturalitatea, prekaritatea...; bigarrenik, emakumeok indarkeria sexistari nola aurre egin; eta azkenik, emakumeon identitateak eta gure gorputz intsumisoak, bertan

sexualitatea, eskubide erreproduktiboak, prostituzioa, lesbianismoa etab. landuko ditugu.

—Nortzuk biltzen zarete bertan?

—Parte hartu gura duen edozein emakume bil daiteke jardunaldi hauetan. Jardunaldien antolaketari dagokionez, hainbat elkarte gaude zeregin horretan. Hori bai, elkarte hauek ez-instituzionalak dira, hau da, edozein instituziotatik independenteak dira, nahiz eta momentu jakin batean eurakaz lan egin. Mugimendu feminista herri-mugimendua da, eta gure instituzioak gaur egun ez dira bat ere herriarenak.

—Horrenbeste elkarte izanik, zaila izango da danon artean zerbait adostea?

—Aurreko urteetan bai gertatu da zailtasunak egon direla puntu komunetara heltzeko. Bereziki, euskal feminismoak eta feminismo independente deiturikoak talka egin zuten, eta azkeneko jardunaldietan arazoak izan ziren. Jardunaldiak hausnarketa egiteko dira, baina horretaz gain, denon artean plangintza bat erroteko. Baina 93ko jardunaldietan guztiz kontrakoa gertatu zen, haustura egon zen. Bi korrante horiek urrundu egin ziren, batu beharrean.

—Eta aurtengoa zer aurreikusten duzue?

«Jardunaldiak danon arteko plangintza bat adosteko dira»

—Jardunaldiak burutzea lortu da behintzat eta hori kriston pausua da. Printzipioz, aurtengo jardunaldietako helburuetako bat aliantzak sortzea da. Nahiz eta esparru guztietan ezin adostu, batzuetan ados jartzea lortuko dugu.


—Jadanik hildako bat egon da 2008an, lan munduan emakumea diskriminatzen da, are gehiago gaztea izanik...

—Bai. Saltzen diguten berdintasun faltsu hori aipatu dituzun datuakaz ikusten da guztiz faltsua dela. Instituzioek egiten dituzten hainbat plan edo legek ez dute ezertarako balio eta, gure ustez, aldaketa estrukturala jaso behar da hezkuntzatik hasita. Horretarako, Bilgune Feministak hainbat tresna plazaratu ditu, Hezkidetzeta Gida tartean. Honako hau ikastoletan lan egiteko tresna da. Gure lana ez da bitarteko guztiak eskaintzea, baina ahal dugun heinean eskaintzen dugu bitartekoa. Beste adibide bat jartzearen, komunikabideen munduan ere beste gida bat kaleratu dugu. ○


Informazioa: www.jardunaldifeministak.com

ESKERRAK MIGIEZINEN AGENTZIETAN EUSKARA SUSTATZEKO KANPAINA MONETAN PARTE MARTU DUTENEI

- Areta inmobiliaria: Basagoiti etorbidea 45, 48991 GETXO
- Inmobiliaria Egurrola: Ibaiondo kalea 3, 48930 GETXO
- Inmobiliaria Lano: Ainguraren etorbidea 4, 48993 GETXO
- M & M: Gabela kalea 3, 48930 GETXO
- Innovaus: Basagoiti etorbidea 49, 48991 GETXO
- Eginkor: Basagoiti etorbidea 55, 48991 GETXO
- Egötzai: Algotako etorbidea 86, 48991 GETXO




BUCAS CASA
edo
etxe bita
zabilta?



Mizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei
Asesoramiento lingüístico al comercio getxotarra
94 415 2252 • gehi@getxo.net



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua



OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ

Euskara Zerbitzuak zorion-txartel, gonbidapen edota oroigarri ereduak batzen dituen liburuxka argitaratu du. Liburuxka kontsultatu nahi izanez gero jo ezazu iragarki honetan agertzen diren inprentetara. Udalaren web gunean ere aurkituko duzu: www.getxo.net

ARGAZKI LUR (Euskal Color Amezti),
ARGAZKI LUR (Villamonte),
LIBRERÍA ZUGATZARTE,
EUSKAL COLOR,
ARNAGA,
BEHIN BATEAN,
FOTO Y PAPEL,
ITXASIKUS,
LIBRERÍA ERKUDEN,
LIBROS PAPELERIA ANA M^o BOLOIX,
COSAS,
HODOI,
LIBRERIA ITZIAR,
BOLIVAR ELORDUI LIBURUDENDA,
KOPRINTER,
FOTOCOPIAS KISER,
IMPRESA ARENAS,
LIBRERÍA MAYOR 29,
LIBRERÍA NADAL,
LIBRERÍA PAPELERIA BLOCK,
BEREZI COLOR,
CIANOPLAN,
FOTO RICARDO,
FOTO IÑAKI,
LADREDO HERMANOS



Korrikolari

Primerako bakailaoa herriko giro beroan



Miguel Angel Zabala, Korrikolari tabernako jabea

Txoko bükia da Erandioko Korrikolari, baina metro gutxitan istorio asko gordetzen dituela konturatuko zara sartu bezain laster. Izena jabeak berak korrika egiteko daukan afizioagatik dator: *"Herriko lagun batek, Goikok, Korrikolari deitzen ninduen"*. Orain dela 13 urte jarri zuen martxan taberna Miguel Angel Zabalak, Dori Navarrete emaztearen laguntzarekin, Bilboko Guria bezalako goi-mailako jatetxeetatik pasa eta gero. Bertan piztu zitzaion bere bizitzako pasio nagusienetako bat izan denerako grina, bakailoarekikoa, hain zuzen ere. Pil-pilean, Bizkaiko erara, tartaletak, bakailoaz betetako piperrak, Klub Ranero erara... ezagunak diren bakailao errezeta guztiak prestatzen ditu Miguel Angelek bere laborategian: *"Sekula ez naiz nekatzen; ez jateaz,*

ezta kozinatzeaz ere". 1994tik gaur egun arte, 12 tona inguru bakailao jan dituzte Korrikolariko bezeroek. Asteko zazpi egunetan su artean ibiltzen bada ere, ez ditu goi-mailako pintxoak emateko jarraitu beharreko pausuak eta jakin beharreko sekretuak ahazten.

Bakailao gozoa eta kalitate handiko pintxoek gain, badago taberna berezi egiten duen beste zerbait. Toronto, Italia, Brasil eta beste hainbat lekutatik ekarritako 158 azulejuk betetzen dituzte lokaleko hormak: *"Bezeroek ekartzen dizkirate euren bidaietatik; nik ilusio handiz hartzen ditut"*. Hauekin batera, krosetako argazkiak, koa-droak, oroigarriak eta, nola ez, Migelen beste pasioaren irudiak: Athleticarenak. ○

San Inazio 9, ERANDIO / Tel.: 656 792 708



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gozariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador Goiezi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Eguneroko karta berezia
 - Gaeuz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14

Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93



- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO


BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T: 94 430 69 42 / ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1

T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13

T: 460 02 88
ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE

usategi

ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Zozoak beleari: ipurbeltz; astoak mandoari: belarriluze; huntzak biligarroari: buru bandi eta zuk lagunari alferrentzi! Potrojoan ematen dituzu 24 orduak! Horrela aberatsak bakarrik bizi litezke! Eta amaren poltsikoetan ez dago 20 eurotik gorako billeteirik!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Aspaldiko lagun batez egingo duzu topo kalean. Denbora luza pasa da azkenengoz elkar ikusi zenutenetik, eta asko aldatu dela antzemango diozu. Gonbida ezazu zerbait hartzera, asko daukazez-eta elkarri kontatzeko.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Lehenengoan artean egoteko zure grina entzuna izango da nonbait. Ondo moldatuko zara, itxura ona emango duzu. Baina kontuz, inbidia pitz ditzakezu inguruan. Argi ibili eta... burua erabili!

META



(Irailak 17 urriak 16)

Edukitzen dituzun gastuak gutxitu egin behar dituzula? Parranda gutxiago egin, eta ederto gutxituko zaizkizu. Amets ugari egiten dituzu gauean, baina goizean, esnatzean, egunerokotasuna nagusitzen da.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Sorgin-afariak txarto egin zizulako aitzakia eman diozu amari. Goizean goiz eta parranda egin ostean jandako pintxo hura ez zegoela egoera onean? Bada, mokadu batean jan zenuen! Ahalegindu bazara ere, zer uste duzu amak sinetsi dizula?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Bat, bi, hiru, lau... bost, sei, zazpi... Ze pozik zabilzan azken aldian! Beste urte bat betetzeak on egin dizula dirudi. Ingurukoak ere pozik zu barreka ikusteagatik. Zu hain zorionsu ikustera ez daude ohituta eta.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Jairik-jai, edo hobeto esanda, gaurik-gau ibili izan zara azkeneko hiru hilabeteetan. Zure gorputza esfortzuaren ajeak nabaritzen hasi da dagoeneko. Horrela jarraituz gero oste kronikoa jasan beharko duzu. Atsedean hartu!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Arazoei behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Gaur egungo teknologia berriak ez zara oso ondo moldatzen; baina lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikasten da.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Kirola egin, etxeko lanetan lagundu, hain burugorria ez izan... Horiek guztiak beteko zenituela zin egin zenuen urte amaieran. Hala ere, urte berri honen bi hilabete joan dira dagoeneko. Eta ez dugu aldaketarik antzeman. Adarra, gezurretan berritortu?

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Garai txarrak dira hauek zuretzat. Buruari buelta gehiegi ematen dizkiogu eta zure jarrera bizitzaren aurrean ez da batere baikorra. Jendeak maite zaitu, lagun onak dituzu. Etorbizunean hobeto joango zaizula ziur nago.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Urrun daukazuun familiako kideagaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diozu noizean behin idazten? Ondo etorriko zaizu, eta berak biziki eskertuko dizu. Mendira joaten zaren bakoitzean, berehala nekatzen zara; sarriago joaten hasi beharko zenuke.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)


Osasuna eta dirua zeure alde dituzu, baina ez, ordea, lagunak. Badakizu zure umorea eguraldia bezala aldakorra dela, eta liskar bat baino gehiago izan ditzakezu umorearen kontura.

SAN INAZIO AUTOESKOLA

1951N SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak


Tellexe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA



Keko

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK




Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimatu handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren arabera atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratseko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Letoniako hiriburua. 4. Iparraidean, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. Kokoriko jarri.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Ixiltzen ez den horietakoa
- Alkandora gorriagaz janzen da sarritan
- 1999tik da presidente

> Aurrekoaren erantzuna: Kalkutako Santa Teresa

> Irabazlea: **Alvaro Bergaretxe ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:


UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

• *Argia* astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



• *Freexkue* liburua

www.argia.com



Basurto

Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



EDURNE ETA AITZIBER BASOZABALEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Algortako Tristan de Martiartu Eskaut Taldea, 1968


Zierbenako Punta Luceron egindako argazki honetan, algortar eskautak (1960 aldera sortu zen talde hau) dituzu, itsasbazterreko bateria baten gainean. Gaur egun hau dena desagertuta dago, kanpoaldeko portuko instalazioengatik. Egun, birako txangoa izan zen. Den-dena oinez. Larunbatean Algortatik irten, Santurtziko Serantes-era igo eta Zierbenara jaitsi ziren, bertan gaua emateko, armadaren barrakoi zahar baten (hau ere desagertua). Hurrengo egunean, igandea, Pobefñatik itzuli ziren etxera baina itzuli orduko, goizean, Txomin Guinea begiraleak motxilatik kamara atera eta berak egindako hiruoineko tolesgarria atera eta ... zas! Goiko argazki polita egin zigun.

Argazkian: 1. Santiago Geruzaga, 2. Patxi Atxalandabaso, 3. Valerio Basozabal, 4. Gabriel Berger, 5. Jose Angel Gandiaga, 6. Josan Dominguez, 7. Eduardo Barrenetxea, 8. Jon Bilbao, 9. Juan Luis Bretos, 10. Rafa Mota, 11. Alberto Basterretxea (GB), 12. Manu Mier (begiralea), 13. Antton Azkargorta, 14. Juan M^a Goikoetxea, 15. Txema Bretos (GB), 16. Alberto Zabala, 17. Manu Llona, 18. Txabi Azkargorta, 19. Josan Puertas, 20. Txomin Guinea (begiralea), 21. Angel Garcia, 22. Santiago Txurruka, 23. Angel M^a Gerediaga.

XABIER SILVEIRA > Bertsolaria

“Mafioso izatea gustatuko litzaidake”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Ezin daiteke defini egunero aldatzen naizelako.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

A las ocho en el bule, adibidez.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Asko daude tartean... Maradona, Al Capone, Argala...

Ohitura txarren bat al daukazu?

Baietz esatea eta gero ez egitea. Gauzak egiteko konpromisoa hartzen dut askotan eta gero ez dut betetzen.

Aitor dezakezun bizio bat.

Eguerdi partera arte lo egitea.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Tabernetako bidaietatik aparte, Marokora joan nintzen lehenengo aldia errepikatuko nuke.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Mafioso izatea gustatuko litzaidake.

Zein da zure ametsetako bat?

Euskal Herria zenbait euskaldunetatik libre ikustea, ez soilik espainoletatik libre, baizik eta euskaldun batzuetatik ere libre.

Ikusi duzun azken filma?

23 pelikula.

Zer gabe ezin zaitzke bizi?

Bertsolaritzarik gabe.

Euskal Herriko zure txoko kutunena?

A-8koa ez den beste edozein toki. ○

LABURREAN— Xabier Silveira lesakarra 1976an jaio zen. Nafarroako Bertsolari Txapelketa bost aldiz irabazi du: 1997, 2004, 2005, 2006 eta 2007an. 1994an, berriz, Euskal Herriko eskolarteko txapelketa irabazi zuen Maialen Lujanbioren aurretik. Estilo probokatzailea dauka; horren adibide, inoiz, epaimahaikoen aurka bertsoak botatzera ere ausartu izana. Bestalde, *Gara* egunkariaren iritzi orrialdeetan zutabe bat idazten du astero, 2007ko abenduan lehenengo eleberria kaleratu du: *A las ocho en el Bule*. Hain zuzen ere, lehenengo liburua gazteleraz idazteak eztabaida sortu du.

Unibertsitateko Aisia Kulturala

GETXO

Zinemaren begiradak.
Lumiere anaietatik zinema postmodernora.

Ikastaro honetan zehar zinemaren historian proposatutako begirada ezberdinak berrikusiko ditugu zuzendari eta lan esanguratsuen bitartez. Lehen zinema "primitibotik" abanguardia historiko eta egungo adierazpen saiakera experimentaletan murgilduko gara, ikus-entzunezko analisirako oinarri teorikoak eta filmeen zatiak uztartuz, baina beti ere denontzat ulergarri suertatzeko moduan. Finean, 100 urte hauetan zehar zinemak eskaini dizkigun begiradak aztertzea dugu helburu.

Irakaslea:
Xabier Landabidea

Prezioa:
30 euro getxoztarrentzat, 45 euro getxoztarrak ez direnentzat.

Izena emateko eta informaziorako:
Villamonteko Getxoko Kultur Etxea. 94 491 40 80

Izena emateko epea:
Martxoaren 18ra arte

Egutegia:
Apirila: 2, 9, 16, 23, 30. Maiatza: 8, 14, 21, 28. Ekaina: 4
19:00-20.30

Ocio Bide



Estudios de Ocio
Aisiako Ikaskuntzak
Deusto



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

► Euskara Zerbitzua



EUSKARA BIZI



Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

Bidaia-

asistentziako

doako aseguria

abantailak era

guztietako 2.000

establezimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko giltza.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbk.es

orrian